



MARTXOAK 8- EMAKUMEEN*¹ NAZIOARTEKO EGUNA

SARRERA IRTEERA

Bi urteko greba feminista eta gero, orain zer? Nahiz eta martxoaren 8a borrokarako eta emakumeen* eskubideen aldarrikapenerako eguna izaten jarraitu, beharrezkoa da gelditzea eta norantz joan behar dugun pentsatzea.

Emakume taldeen eta mugimendu feministaren aldarrikapenak argi geratu dira. Sistema heteropatriarkal kapitalista benetan eralda dadin, iraultza feminista bizitzako esparru guztietan eman behar da, lan ordainduetan eta doan egindakoetan, sexualitatean, egungo kontsumo-ereduan, egungo familia-ereduan, ezagutzak erreproduzitzeko moduan, arrazakeriaren aurrean, egungo edertasun-ereduaren aurrean, genero-kategorien aurrean eta emakumeak* bizitzen jarraitzen duten zapalkuntza guztien aurrean.

Ezin dugu ahaztu zapalkuntza eta desberdintasun horiek guztiek indarkeria matxistarekin duten lotura; izan ere, emakumeen aurkako indarkeria estruktural, sinboliko, ekonomiko, psikologiko eta fisikoko egoerak erreproduzitzeko eta indartzeko haztegia dira horiek guztiak.

Feminizidioak ohikoak izaten jarraitzen dutela ahaztu gabe, eta 2019an Euskal Herrian lau emakume, Espainiako Estatuan laurogeita bost eta munduan milaka emakume* erail dituztela 2003tik hona.

Errealitate horren aurrean, politika publikoak egokitu egin behar dira eta estrategiak bilatu behar dira diskriminazio mota guztiak ezabatzeko, gizateriaren erdiek, emakumeek*, gizonen aukera berberak dituztela baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko bermatuz. Pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituzten neurriak bultzatzeko, erakunde publikoen antolaketa-kultura eraldatzeko eta berdintasunaren espejismoa gainditzeko. Horrela, emakumeek aukera izan dezaten izan, sentitu eta libre bizitzeko.

Aramaioko Udalak gure erantzukizun sozial eta politikoa onartu behar du berdintasunezko jendarte baten eraikuntzan, politika feminista transbertsalak diseinatuz, errotik eraldatuko dutenak eta eremu guztietan eragingo dutenak.

Horregatik guztiagatik, konpromiso hauek hartzen ditugu:

LEHENENGOA.- Berdintasun egiturari baliabide ekonomikoak ematea, berdintasun-politikak eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko.

BIGARRENA.- Emakumeekin* eta mugimendu feministarekin elkarrizketarako espazioak bultzatzea.

HIRUGARRENA.- Emakumeen* ahalduntzea bultzatzen duten ekintzak garatzea.


LAUGARRENA.- Generoaren araberako eraginari buruzko txostenak garatzea udal araudi, programa eta zerbitzu guztietan.

BOSGARRENA.- Genero ikuspegiaren zeharkakotasuna bermatzea udal arlo eta jardueran guztietan.

Norbanakoen/udalerrien aberastasunetik haratago, guztion bultzadatik, Aramaiotik ere, olatu feministan batu behar ditugu gure indarrak.

Horregatik guztiagatik, dei egiten diegu herritar guztei martxoaren 8 honetarako Mugimendu Feministak egingo dituen mobilizazio deialdietan parte har dezaten.

Aramaion, 2020ko otsailaren 20an,



Gizarte Ongizateko zinegotzia

¹ Emakumeek* terminoarekin, heteropatriarkatuaren zapalkuntzaren baitan dauden subjektuak izendatu nahi ditugu